

II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

## Behin betiko onestea kreditu aldatzeko 6/2024 espedientea

Bat etorri Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuen otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin, eta inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez gero kredituak aldatzeko 6/2024/2024 espedienteari (diruzaintzako gerakinaren eta aurrekontu partidaren bajaren kontura finantzatutako kreditu aldaketaren modalitatean) hasierako onespena eman zion erabakiaren aurka, espediente hori behin betiko onetsita geratzen da, honela laburtuta, partidaka:

## Gastuen egoera, kreditu gehigarria

6. kapitulua	6.000,00 euro
2. kapitulua	54.000,00 euro
<b>Guztira</b>	<b>60.000,00 euro</b>

## Diru sarrerren egoera, diru sarrera gehiago

Diruzaintzako gerakina	
8. kapitulua	40.000,00 euro
450.623.03 aurrekontu partidaren baja	
6. kapitulua	20.000,00 euro
<b>Guztira</b>	<b>60.000,00 euro</b>

Aurrekontua aldatzen duen espediente horren behin betiko onespene erabakiaren aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar dezakete zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi (2) hilabeteko epean, erabakia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Lapuebla de Labarca, 2024ko azaroaren 20a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ